

Bezeroekiko harremanak

Gure bezeroekin izango dugun harremana oso garrantzitsua izango da, beraz bi modutan jarriko gara beraiekin kontaktuan. Alde batetik pertsonala izango da, hau da, gurekin kontaktuan jarri ez gero guk geuk arduratuko gara arazoak edo zalantzak konpontzeaz.

Beste aldetik, gure sare sozialen edo web-orrialdean dugun bezeroen arretaren bitartez beraien zalantzak edo arazoak jasotzeaz arduratuko gara.

Bezeroekiko harremanak hobetzeko eta beraingana urbilarazteko, hainbat deskontu edo promozio eskainiko ditugu:

- Erositako produktu kopuruaren arabera
- Internetetik erostean

Denbora pasa ahala, gure ideia lokal bat alokatzea da eta bertan gure produktua ekoitzi eta saltzea. Horrek gure erosleekiko harremana hobetuko du.

